



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ESP.KODEA	2025CONE0004
COD.EXP.	

AZKOITIKO UDALA ETA EUSKARAZ KOOPERATIBA SOZietateAREN ARTEKO
HITZARMENA

Azkoitia, 2025eko maiatzaren 8a

BILDU DIRA

Alde batetik, Sonia Vazquez Tejerina, Azkoitiko Udaleko Herritarrak Batzordeko Zinegotzi Delegatua eta P-2001800-H IFK zenbakia duen Azkoitiko Udalaren izenean, egintza honetan Azkoitiko Udal Idazkaria den Unai Urkijo Rodriguez parte hartzen duelarik, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren, Estatuko gaikuntza nazionala duten toki-administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena, 3.2 i) artikulua arabera.

Bestetik, Maite Azpiroz Eizagirre (NA 72581262R), IFK F95222816 duen Euskaraz Kooperatiba Sozietatearen izenean eta haren ordezkarietan, helbidea Kale Nagusia 60-62 zenbakian dagoen Merkatu Plazako Kultur etxeko 3. solairuko AEK gela 20720 Azkoitian duena.

Bi alderdiek elkarri aitortu diote hitzarmen hau izenpetzeko gaitasun osoa dutela, eta Euskaraz Kooperatiba Sozietatea eta bere ordezkariaren kasuan, Administrazio Publikoarekin hitzarmenak izenpetzeko inolako bateraezintasun edo ezgaitasun arrazoietan sartuta ez daudela adierazi ondoren, agertutakoek honako hau

ADIERAZI DUTE

I.- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 22.2 artikuluan xedatzen du Toki Administrazioen aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahalko direla, betiere, dirulaguntza arautzen duen hitzarmenean eta dirulaguntzak arautzen dituen araudian jasotako baldintzetan.

Lege bereko 28. artikulua dirulaguntzak zuzenean emateko prozedura arautzen du, zehaztuz, hitzarmenak direla Toki Administrazioek aurreikusitako dirulaguntza izendunak bideratzeko ohiko tresnak. Hitzarmenek, legean xedatutakoa betez, aplikagarriak diren baldintzak eta konpromisoak jasoko dituzte.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 65. artikuluaaren arabera aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak izango dira, xedea, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna aurrekontuaren gastuen egoera-orrian berariaz zehaztuta dituztenak. Gainera, dirulaguntza horiek emateko prozedura ofizioz hasi daiteke edo eskatuta eta dirulaguntza arautzeko oinarri izaera izango duen hitzarmenarekin amaituko da.

II.- Euskaraz Kooperatiba Sozietatea irakaskuntza eta lan elkartua bultzatzeko irabazi-asmorik gabeko Sozietate Kooperatiboa da. Sozietatea 2002ko irailaren 20an erregistratu zen Euskadiko Kooperatiben Erregistroan, XII. liburukiko 1691. orrian, eta honako hau du IFK: F-95222816.

III.- Euskaraz Kooperatiba Sozietatearen helburua euskara eta euskal kultura sustatzea, irakastea eta hedatzea da, baita horretarako jarduera osagarriak bultzatzea ere; esaterako, material didaktikoak eta aldizkariak editatzea eta argitaratzea, hizkuntza normalizazioarekin lotutako planak egitea, euskararekin lotutako sentsibilizazio kanpainak antolatzea eta euskara ikasteko prozesuak sustatzea, kultur ekintzak antolatzea, irakasleak euskara irakasteko prestatzea, beste erakunde batzuekin edo enprekin elkarlanean aritzea, baita helburu bertsua duten bigarren mailako kooperatibekin batera lan egitea ere.

IV.- Lankidetzaz hitzarmen hau egiteko orduan, kontuan hartu dira Euskaraz Kooperatiba Sozietatearen finkatze maila, ematen duen zerbitzua, izandako ibilbidea, jarraitasuna eta egonkortasuna.

V.- Dirulaguntza hau ematen da interes publiko eta sozialeko helburuak betetzeko. Zehazki, Zapatu Laranja egitaraua finantzatzeko erabiliko da.

VI.- Hitzarmen hau sinatzen da Azkoitiko Udalaren eskumenen egikaritzan, hain zuzen, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.26 artikulua xedatutakoaren arabera.

VII.- Hitzarmen honen helburua Azkoitiko Udaleko aurrekontuan (indarrean dagoena) aurreikusitako dirulaguntza erakunde onuradunaren alde bideratzea da eta erakunde onuradunak bere gain hartuko dituen baldintzak nahiz konpromisoak finkatzea.

Beraz, Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta aplikagarria den gainerako araudian ezarritakoa betez, bi aldeek hitzarmen hau izenpetzeko erabakia hartu dute, ondorengo baldintza edo xedapenen arabera:

XEDAPENAK

LEHENA: Hitzarmen honen xedea da Azkoitiko Udalak 2025. ekitaldiko aurrekontuan aurreikusitako dirulaguntza Euskaraz Kooperatiba Sozietateari ematea eta emate



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

horren baldintzak arautzea, aipatutako erakundeak aurkeztu duen programa aurrera eramanez: Zapatu Laranja, hain zuzen ere. Ondorioz, aipatutako programak sortutako gastuei aurre egiteko bakarrik erabili daiteke dirulaguntza.

BIGARRENA: Azkoitiko Udalak, Euskaraz Kooperatiba Sozietateari GEHIENEZ BOST MILA EUROKO (5.000,00 €) dirulaguntza emango dio programan aurreikusitako ekintzetarako, 2025eko udal aurrekontuko partida honetatik: 3300.471.335.00.06. Dirulaguntza hau, ordainketa batean emango da, erakundeak gastua egin eta frogatu ondoren. Horretarako, Euskaraz Kooperatiba Sozietateak dokumentazioa hau aurkeztu behar du:

- a) Eskaera ofiziala eta 2., 3. eta 4. Eranskinak.
- b) Egindako eta diruz lagundutako egitasmoaren memoria.
- c) Emandako dirulaguntzaren zenbateko osoaren fakturak.
- d) Egitasmoaren diru sarreraren eta gastuen balantzea.

HIRUGARRENA:

Euskaraz Kooperatiba Sozietateak ziurtatzen du, Dirulaguntzen onuradun izateko azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluan eta Azkoitiko Udaleko Dirulaguntzen Oinarri Orokorretan (GAO, 54 zk, 2023ko martxoaren 20a) zehazten diren baldintza guztiak betetzen dituela.

LAUGARRENA:

- a) Aurkeztu den programaren baitan egiten diren ekitaldi guztietan adierazi beharko da Azkoitiko Udalak diruz lagundu duela. Era berean, argitaratu daitezkeen publizitateetan, agerian utzi beharko da Azkoitiko Udalak laguntza eman duela, "Azkoitiko Udalaren laguntzarekin" esaldia txertatuz Udalaren Logoarekin batera.
- b) Ekitaldi edo jardueraren berri eman beharko zaio Euskara Departamentuari hilabete lehenago (eguna, ordutegia, lekua, informazioa ...).
- c) Iragarkiak, oharra eta jakinarazpenak, bai ahozkoa eta bai idatzizkoa, ahal den guztietan, euskara hutsean egingo dira. Bi hizkuntzetan egiten badira, lehentasuna emango zaio euskarari.
- d) Ezingo da sexu edo arraza arrazoiengatik diskriminaziorik egin eta une oro errespetatu beharko da emakume eta gizonezkoen arteko aukera-berdintasun printzipioa.

BOSGARRENA:

Diruz laguntzeko gastutzat joko dira diruz lagundutako programaren izaerari erantzuteaz gain, dirulaguntzak arautzeko oinarriek ezarritako epean egiten direnak. Gastua diruz laguntzeko, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 31. artikuluan xedatutakoa bete behar da, baita azpikontratatzeko 29. artikuluan eskatutako baldintzak ere.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

5.1.- Diruz lagundu daitezkeen gastu kontzeptuei dagokienez, gastu mota batzuetarako ondorengo mugak ezartzen dira:

5.1.1.- Ez dira onartuko gastuen oharrak eta beste dokumentu batzuk, ez badituzte betetzen legezko faktura edo egiaztagiri kontsideratzeko baldintzak.

Salbuespen izaeraz, zerbitzuak edo lanak egiten badituzte, noizbehinka, faktura egiteko egoeran ez dauden pertsona batzuek, baina legez eskatu dakizkien baldintzak beteta, fakturaren ordezkari onartuko da hartzaileak jaso izanaren agiria aurkeztea, zeinetan jasoko diren izen-abizenak, nortasun agiria (NA) eta kontzeptua. Onuradunaren gastu guztiak kontuan hartuta, ezin izango dute gainditu dirulaguntzaren % 25aren kopuru. Jaso izanaren agiri bakoitzaren zenbatekoa ezingo da izan 800 € baino handiagoa eta zenbatekoa 300 €tik gorakoa denean, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen banketxe kontuan ordainketa egin izana ziurtatzen duen agiria aurkeztea.

Jaso izanaren agiria sinatu duenari Ogasunak erreklamazioa jarriko balioke, ezin izango zaio inolako erantzukizunik eratorri Azkoitiko Udalari; izan ere, Azkoitiko Udalak gastua egin eta ordaindu dela egiaztatu besterik ez du egingo, emandako dirulaguntza justifikatzeko bitarteko gisa.

5.1.2.- Bazkari, afari, hotel edo ostalaritzako zerbitzuen kostuak, kilometraje gastuak, ibilgailuentzako erregai gastuak, telefonia zerbitzuetako gastuak edo antzekoak modu nabarian (eta egoki justifikatuta) aurretik identifikatuak izan behar dira aurkeztutako programan. Edonola ere, behar den proportzionaltasuna gorde beharko dute egindako gastuaren artean eta lortu nahi duten helburuaren artean, zenbatekoa izan gabe entitatearen gastu guztien % 25 baino handiagoa.

5.1.3.- Salbuespen izaeraz, justifikatzen zailak diren gastuak onartuko dira, zeinak ez duen beharko agiriz justifikatzea, eta kasu batean ere ez da izango onuradunaren gastu guztien % 10 baino handiagoa.

2025eko ekainaren 30ean amaituko da dirulaguntza erabiltzeko edo jarduerak egiteko epea. Aldiz, dirulaguntza emateko helburua bete duela zurrizko eta jasotako dirulaguntza zertan erabili den justifikatzeko epea 2025eko uztailaren 15ean amaituko da.

Justifikatzeko modua KONTU ERRAZTU bidez egingo da eta honako dokumentuak izango ditu:

- a) Justifikazio-kontuaren adierazpena Azkoitiko Udaleko webgunean (www.azkoitia.eus) eskura dagoen ereduaren arabera diruzainak sinatua.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- b) Jarduera memoria, dirulaguntza ematerakoan jarritako baldintzak bete egin direla justifikatzen duena eta egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazten dituen.
- c) Jarduerak izan dituen gastuen eta sarreraren zerrenda sailkatua Azkoitiko Udaleko webgunean (www.azkoitia.eus) eskura dagoen ereduaren arabera diruzainak sinatua.
- d) Gastua justifikatzeko balio duten faktura, ordainagiri edo trafiko juridikoan froga balioa duten beste agiriak onuradunak gorde beharko ditu eta Euskara Departamentuak dirulaguntza egoki aplikatu ote den egiaztatuko du horren gaineko arrazoizko ziurtasuna ematen duen ordainagirien lagina begiratuta. Hautaketa ausazkoa izango da eta onuraduna behartuta egongo da hautatu diren agiri original horiek aurkeztera.
- e) Jaso-izanaren egiaztagiria begiratuko dira, 300,00 eurotik gorakoak direnak eta PFGZren atxikipena egin den egiaztatuko da. Gainera, igorle beraren jaso- izanaren egiaztagiria aztertuko dira eta PFGZren atxikipena duten egiaztatuko da, betiere igorlearen kopuru metatua 300,00 eurotik gorakoa bada.

Justifikatzeko obligazioa ez betetzeak nahiz behar bezala ez justifikatzeak jasotako kopuruak eta dagozkien interesak itzuli beharra ekar lezake berekin, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

SEIGARRENA: Likidazioan ezingo da superabita eduki eta horrela suertatu ezker, gehenez jasotako kopurua itzuliko dio Azkoitiko Udalari.

ZAZPIGARRENA: Udalaren laguntza bateragarria izango da gainerako erakunde publiko edo pribatuak xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin, eta Euskaraz Kooperatiba Sozietatearen gainontzeko sarrerekin, betiere udalari informatuta. Edonola ere, ezingo da gain-finantzaketarik izan, eta egoera hori gertatzen bada, dirulaguntza murriztuko zaio Euskaraz Kooperatiba Sozietateari.

ZORTZIGARRENA: Azkoitiko Udala ez da arduratuko Euskaraz Kooperatiba Sozietatean lanean ari diren langileez eta aipatutako erakundea izango da langileekiko lan-harremanaren ondorioz sortutako lege alorreko betebeharren erantzule bakarra. Lan alorreko legeri babesleak bere alderdi guztietan ezarritakoa bete behar du Euskaraz Kooperatiba Sozietateak.

BEDERATZIGARRENA: Hitzarmen hau izenpetzean, sinatzen duenak adierazten du bertan ezarritako betekizun guztiak betetzen dituela eta hemen jasotako baldintza eta betebeharrak guztiak onartzen dituela.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Era berean, izenpetzen duenak adierazten du Azkoitiko Udalari eman dizkion Datu Pertsonalak onespenez eman dizkiola eta datu horiek Azkoitiko Udalak baimendutako fitxategian sartzeko eta tratamendu automatizatua emateari baietza ematen diola.

Gainera, sinatzen duenak aitortzen du hitzarmen hau izenpetzeko eman duen informazioa egiazkoa dela eta ez duela isilean ezer gorde edo aldatu.

Hitzarmena sinatzen duenak baimena ematen dio Azkoitiko Udalari:

- a) Izaera pertsonaleko datu horiek udala kudeaketarako bakarrik erabiltzeko.
- b) Hitzarmen honen xede den dirulaguntza zuzen kudeatzeko garrantzizko den informazio guztia eskuratu ahal izateko beste Administrazio Publiko batzuen fitxategietan beharrezkoak diren kontsulta guztiak egiteko.

Hitzarmen hau izenpetzen duenak aitortzen du argibide guztiak eman zaizkiola berak eman dituen datuak izaera pertsonaleko datuen eta babes digitaleko 3/2018 lege organikoak ezarritako moduan eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko aukeraren inguruan.

HAMARGARRENA: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, betetzekoak izango dira Estatuak dirulaguntzetarako 2003ko azaroan 17an eman zuen 38/2003 Lege Orokorra, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu Orokorra eta kasuari aplikagarria den gainontzeko araudia.

HAMAIKAGARRENA: Administrazioko auzitegiatarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira hitzarmen honetatik sortzen diren auziak. Nolanahi ere, bitartekaritza edo arbitrajez konpondu daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakoarekin bat etorritik.

Hitzarmen honetako klausulak ez betetzea haren deuseztapena ekar lezake eta erakundeak dirulaguntza kontura jasotakoa itzultzera behartuta egongo da, laugarren klausulan zehaztutako eran.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, bi aldeek hirukoiztuta sinatzen dute.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**Azkoitiko Udaleko Herritarrek
Sozietatearen
Batzordeko Zinegotzi Delegatuak,
Sonia Vazquez Tejerina**

**Euskaraz Kooperatiba
Urolako AEKko zuzendaria,
Maite Azpiroz Izagirre**

**Udal Idazkaria,
Unai Urquijo Rodriguez**



EKS | CSV: ESKU14fb24f2-75b0-479d-881c-b3fdb7617ce8

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>